

Ikerketaren sustapena Makina-Erremintaren sektorean.

2010/10/18

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, Fagor Arrasatek eta Koniker zentro teknologikoak hitzarmena adostu dute makina-erremintaren sektorean ikerketa sustatzeko.

Hitzarmenak iraupen mugagabea du, eta etorkizunean zabaldu egin daitezkeen bi ikerketa ildorekin abiatu nahi du. Lehenengo ikerketa ildoak makinak egiteko erabiltzen diren materialen neke mekanismoak aztertuko ditu, makinaren bizitza handitzeko. Beste ikerketa ildoak txapa deformatzeko prozesuak modelizatzea ahalbidetuko du (ordenagailu bidezko simulazioa, txaparen portaera iragartzeko), eta horrek bi ondorio izango ditu: prozesatutako txaparen kalitatea hobetzea eta hori lortzeko makina diseinu egokiak lortzea.

Hitzarmenak Mondragon Unibertsitateko I+G jardueraren lankidetzan bidezko ikerketa eta garapen ereduari erantzuten dio, eta horren barruan zentro teknologikoen eta enpresek funtsezko eragile gisa parte hartzea nahi da.

